

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE/EVE)
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, EUSKADIKO
GIZARTE ERAGILEEK ENERGIAREN INGURUKO GAIEZ
DITUZTEN EZAGUTZA ETA IRITZIAK JASOTZEKO
AZTERKETA KONTRATATZEKO**

ESPEDIENTE ZENB.:
ECO/006/09

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2009ko ekainaren 1ean

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA –EEE/EVE
Arduraduna: Prentsa eta Komunikazio Saila
Bizkaia plaza eraikina
Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua
48011 Bilbo

KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: ECO/006/09

A. KONTRATUAREN XEDEA

Euskadiko gizarte eragileei inkesta bat egiteari begira, hori planifikatu, diseinatu, koordinatu eta aztertzea, eragileek energia gaiez duten ezagutza, interesa eta EEE/EVEren jardueren ezagutzaz eta horien gaineko iritziaz jakiteko asmoz.

B. SAIL / ORGANO KONTRATATZAILEA

Prentsa eta Komunikazio Saila.

C. LIZITAZIOAREN GEHIENENKO PREZIOA

Lizitazioaren gehieneko prezioa: 60.000 euro (BEZa gabe).

D. IZAPIDEAK

Lehiaketa irekia. EEE/EVEren kontrataziorako barne jarraibideen arabera, 3. mailari dagokio kontratu hau.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2009ko ekainaren 19ko 12:00ak arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak Energiaren Euskal Erakundearen, Prentsa eta Komunikazio Sailari zuzenduak, aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.

I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. GAUZATZEKO EPEA ETA LEKUA / ZERBITZUA EMATEA

Lana gauzatzeko, honako epe orokor hauek ezartzen dira:

- 2009ko iraila: Inkesta egingo zaion enpresa/pertsonen hautaketa eta galdeketaren prestaketa.
- 2009ko abendua: Landa lanaren amaiera.
- 2010eko urtarrila: Emaitzen azken txostena ematea eta emaitza horiek EEE/EVEren Zuzendaritza Kontseiluaren aurrean aurkeztea.

K. BERMEAREN EPEA

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzeko, Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeko erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Deskribapena	Puntuazioa
Egitasmoaren egokipena ezarritako helburuetara	30 puntu
Eskaintzen diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak	20 puntu
Eskatzen diren zerbitzuen hobekuntzak	15 puntu
Proposamen ekonomikoa	35 puntu
GUZTIRA	100 PUNTU

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Ez dagokio

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Plegu honen "J" atalean adierazten denarekin bat etorritz.

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

Banku-transferentzia bidez, faktura aurkeztuta, honako epe hauen arabera:

- % 30, kontratua sinatzean
- % 25, komunikazio kanpainaren hasieran
- % 25, eskaintza esleipendunean aurreikusitako jardueren %50 gauzatzean
- % 20, lana amaitzean

T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

ONARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapen Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (“**EEE/EVE**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratatzailearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorri.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen arabera (“**SPKL**”). Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiei dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiei dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua hauexek dira: Euskadiko gizarte eragileei inkesta bat egiteari begira, giltza eskuan erakoa, hori planifikatu, diseinatu, koordinatu eta aztertzea, eragileek energia gaiez duten ezagutza, interesa eta Energiaren Euskal Erakundearen jardueren ezagutzaz eta horien gaineko iritziaz jakiteko asmoz. Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, **5. eranskina**, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. LIZITAZIOAREN GEHINEKO PREZIOA, KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen gehieneko prezioa Plegu honen Karatulan “**C**” **ATALEAN**

adierazitako zenbatekoa da.

b) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

c) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, EEE/EVEk ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den proiektuaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen “I” **ATALEAN** zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

5.1. Gauzatzeko epea Plegu honen Karatularen “J” **ATALEAN** adierazitakoa izango da.

Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo EEE/EVEk lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. 5. eranskineko Zehaztapan Teknikoaren Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarriz gero, ezinbestean bete beharko lirатеke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen “Q” **ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke karatularen “J” **ATALEAN** aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 Karatularen “D” **ATALEAN** zehazten den bezala, EEE/EVEren KABIn 3. mailari dagozkien kontratuei aplikatzen zaizkien arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

- (i) lehen fasean (“*Eskaintzen aurkezpena*”), interesatutako lizitatuzaileek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;
- (ii) bigarren fasean (“*Kontratatistaren hautaketa*”) lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, EEE/EVEk kontratua formalizatzeko lizitatuzailea hautatuko du; eta
- (iii) hirugarren fasean (“*Formalizazioa*”), EEE/EVEk eta hautatutako lizitatuzaileak kontratua sinatuko dute.

6.2 EEE/EVEk eta kontratatistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABlen 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa “**B**” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta haxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

- .1 Proposamenak aurkezteko epea zabalik egongo da 2009ko ekainaren 19ko hamabiak (12:00) arte.
- .2 Proposamenak honako helbide honetara bidali beharko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48001 BILBO. Prentsa eta Komunikazio Sailaren izenean.
- .3 Lizitatuzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko..
- .4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako “**N**” **ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.
- 7.5 Kontratu jakin bat egiteko nahikoa kaudimen dutela kreditatzeko, beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak balia ditzakete enpresariak, haiekin duten lotura juridikoaren izaera edozein dela ere. Dena den, beti frogatu beharko dute bitarteko horiek egiaz dituztela eskura, kontratua betetzeko.

- .6 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkatzeko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, EEE/EVEren aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiek izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.

- .7 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZA izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- .8 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, EVE erakundeko kontratatzailearen eskakizunean edo profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- .9 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarra izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

. Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

- .10 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.
- .11 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri

ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, EEE/EVEekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.

8 PROPOSAMENEN EDUKIA

.1 Lizitatzailleek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "**A**" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.

.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Energiaren Euskal Erakundea, Prentsa eta Komunikazio Sailaren izenean, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "**E**" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.

"Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:

- "**A**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio orokorra"
- "**B**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: proposamen ekonomikoa"
- "**C**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: proposamen teknikoa"

.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak proposamen ekonomikoa jasoko du eta, azkenik, proposamenaren alderdi teknikoak adieraziko ditu "C" gutun-azalak.

.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta EEE/EVEk uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

.5 "A" gutun-azala: Dokumentazio orokorra. Enpresarien gaitasuna eta kaudimena.

- EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako "**A**" **ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, "Dokumentazio orokorra" dela iragarritz.
- Dokumentazio orokorraren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailleek eta Estatuko lizitatzailleen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen

- ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz.
- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte "A" gutun-azalean:
 - a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
 - b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
 - c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatze adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
 - d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen.
 - e. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dituzte baldintza-orri honetako 2. eta 3. ERANSKINAK..
 - f. Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.
 - Baldintza-orriko karatulako **"G" ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailerei.
 - Lizitatzailaren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten

agiriak aurkeztu behar dituzte, edo, bestela zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiazta dezakete, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratueterako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Hala, karatulako **“N” ATALA** bete beharko dute proposamen-egileek.

Sailkapen-ziurtagiririk aurkezten ez badute, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legezkatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala

1. Azken 2 urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu nagusien zerrenda, haien prezioak, datak eta onuradunak adieraziz.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta EEE/EVEk egokitzen jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

1. Gaitasuna

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzerritarrek,

- Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrek edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
- Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.
- Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzeritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoia, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori

betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

.6 **“B” gutun-azala:** Proposamen ekonomikoa.

Baldintza-orri honetako 1. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehieneko zenbatekoa), eta proiektuak adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Karatularen **"G" ATALEAN** horrela ezarriko balitz, behin-behineko berme gisa abal jarri beharko litzateke, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izango lukeena.. Behin-behineko bermea bertan behera geratuko litzateke eta kontratua esleituko ez zaien lizitatzailerei itzuliko litzaietxe, hautatutako den enpresaburuak kontratua sinatu ondoren.

Lizitatzailerek ezingo dute, SPKLko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen **"M" ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatzailerek.

.7 **“C” gutun-azala:** Proposamen teknikoak.

Zehaztapen Teknikoen Txostenean eta baldintza-orri honetako **“O” ATALEAN** adierazitakoa esleipen-irizpideak baloratzeko behar den dokumentazio guztiak jaso behar dute lizitatzailerek gutun-azal honetan.

Proposamen teknikoak honako lizitazio hau eskatu duen sailaren zerbitzu teknikoei helaraziko zaie, aurkeztutako proposamenak balioesteko.

Zerbitzu teknikoaren txostenean lizitatzaileren proposamenak balioestean gain, balioesteko irizpideak eta horietako bakoitzari emandako puntuazioa ere kontuan hartuko dira.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzailerek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.

- 9.2 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatzailleak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Posta elektronikoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzailleak eskaintzan adierazitako e-postako helbidea.
- 9.3 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatzailleak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-enpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena ekonomikoki abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du EEE/EVEk, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikoari erreparatu behar.
- 10.2 Baldintza-orriaren karatulako **“O” ATALEAN** adierazitako oinarritzko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.3 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.
- 10.4 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arazoizko baliora gehien gerturatzeko diren eskaintzak hautatzea.
- 10.5 Proposamena beherapen ausartegizat hartzen bada, HAKLTB-ren 136 eta 174.1. artikulua eta Lege hori garatzen duen Erregelamenduaren 85. artikulua xedatutakoa beteko da.
- 10.6 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen tekniko kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko biko edo handiagoa duena.

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

- 11.1 EEE/EVEren iritziz, eskaintza ekonomiko abantailatsuena nork egin duen hautatu ondoren, lizitatzaille guztiei emango zaie erabaki horren berri, erabaki hori Kontratatzaileraren Eskakizuna edo Profilean argitaratuz.
- 11.2 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hamabost (15) eguneko izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren,

erabakia jakinarazi ez bada, lizitatzailleek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

11.3 Formalizazio-unean perfektionatuko da kontratua, baina formalizazio-egintza burutu baino lehen, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio EEE/EVEri hautatutako enpresaburuak. Horretarako, zazpi (7) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

- Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiak edo, enpresaren lurralde-esparruari erreparatuta, zerga-administrazioko estatu-agentziak emandakoa, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, eta/edo toki-erakundeak emandako ziurtagiria, hari dagozkion zergak egunean betetzen dituela adieraziz. Horrez gain, jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta agiria edo zerga horretako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (**4. ERANSKINA**) zerga horretan bazarik ez duela hartu azalduz.
- Gizarte-segurantzarekiko obligazioak egunean betetzen dituela kreditatzen duen ziurtagiri positiboa; edo, halakorik ezean, dagokion mutualitateko alta agiria.
- Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria, baldin eta betebeharrak hori finkatu bada karatulako **“H” ATALEAN**. Sektore publikoko kontratuen legeko 84. artikuluan adierazitako bideak erabiliko dira bermea eratzeko.
- Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

EEE/EVEko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1 EEE/EVEk bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.

12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamar (10) egun naturaleko epean egingo da.

12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, EEE/EVEk kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.

12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu EEE/EVEk kontratatuzko dituen barne arauan jasotako aipamenak.

12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, EEE/EVEk behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du,

horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak EEE/EVEri kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.

- 12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- 12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.
- 12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

13 KONTRATUA GAUZATZEA

a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEE/EVErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.

f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

g) EEE/EVEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

h) Kontratua amaitutakoan, EEE/EVEk kontratuaren helburua diren lanak hartzeko ekitaldi formala egingo du. Une horretatik aurrera hasiko da kontatzen Plegu honen bermearen epea.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

- a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko EEE/EVEk zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu. Kontratatik derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaindituz gero, kontratatik kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratazko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarriz eta horiek negoziatuz.
- b) Kontratatik ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, aldez aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.

EEE/EVEren oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratatari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratataren kontura joango dira.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-orri honetako Karatulan “**Q**” **ATALEAN** aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratatik EEE/EVEren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratatik ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, EEE/EVEk kontratatari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

- a) Kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.
- b) Kontratista edozein epetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango EEE/EVEk alde zuzenetik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEE/EVEk ezarriko ditu automatikoki.
- c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, EEE/EVEk atzerapeneko aste bakoitzeko % 5eko zigorra ezarri ahal dio, eta gehienez ere %20ko zigorra ezar diezaiake. Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten EEE/EVEk kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta EEE/EVEk kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.
- d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

EEE/EVEk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatu eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldi igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio, eskaera egiteko epea zortzi (8) ordukoa delarik.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, EEE/EVEk lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, EEE/EVEk jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

19.1 Betebehar laboral eta sozialak

- a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei

dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higie, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Kontratua hau sinatzeagatik EEE/EVEk ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du EEE/EVEri erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

f) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontrastek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta EEE/EVEri ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio EEE/EVEri Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

g) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere EEE/EVEko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

h) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

19.2 Hirugarrenen baimenak

EEE/EVEk bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketalanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkartei, enpresei

eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

20 ASEGURUAK

Kontratuak irauten duen bitartean, kontratistak kaudimen egiaztatuta duen aseguru-enpresa batekin derrigorrezko aseguruak izenpetuta eduki behar ditu. Horrekin batera, kontratistak eta bere menpeko azpikontratek eragin ditzaketen kalteen estalduraren barruan EEE/EVE edukiz, aseguru-poliza guztiak izan behar ditu.

Langile guztientzako eta lanei lotutako azpikontratatentzako gaixotasun eta lan aseguruak. Horien gutxieneko estaldurak beteko ditu legeak alor horretan dioena eta aplikagarriak izan daitezkeen lan hitzarmenak xedatutakoa. Horretaz gain, legeak eskatzen dituen derrigorrezko aseguru guztiak ere izango ditu.

Kontratistak eduki behar dituen aseguru-poliza guztiek, klausula honetan aipatzen direnek, atal bat izan behar dute, eta bertan azalduko da uko egingo diotela EEE/EVEren edota haren menpeko langileen kontrako subrogatze-eskubideei aseguru konpainien aldetik.

Kontratu hau sinatzen denean, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio EEE/EVEri, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du.

Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hamabost (15) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, EEE/EVEK aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, EEE/EVEk eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, EEE/EVEK kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

Nolanahi ere, kontratistak, bere erantzukizunaren arabera, kalte-galerei aurre egin beharko die aseguruaren frankiziari dagokion zenbatekoan, bai eta ezarritako kalte-ordainen muga gainditzen den heinean.

Kontratistak atal honetan adierazten dena beteko ez balu, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

21 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA

.1 Egindako lanen jabetza

EEE/EVEren jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabegoa industrial eta komertziala ere, EEE/EVEren esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo

beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe EEE/EVEk espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabegoari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek EEE/EVEren esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industrialak.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak EEE/EVEri eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta alde zuzeneko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela EEE/EVEren baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

.2 Datu pertsonalen erabilera

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, EEE/EVEk aginduko dion eran erabiliko du informazioa kontratistak, eta kontratuarekin zerikusia ez duen zereginetarako ez du erabiliko, ezta beste pertsona batzuei emango ere.

22 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLren 209 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, EEE/EVEk alde zuzeneko eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratistak azpikontrata egin nahi izanez gero, SPKLren 210 artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. EEE/EVEri azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratu egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratistak alde zuzeneko jakinarazi behar dizkio EEE/EVEri idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontrata bakoitzari lotutako kontratuaren alde adieraziz.
- (ii) EEE/EVEk alde zuzeneko onartu behar du.

Nolanahi ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du EEE/EVEk, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez badago, edo azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratatuak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, EEE/EVEri dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

23 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU-KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezken, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

24 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, EEE/EVEk kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatzat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKL-en 206 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

(i) Banakako kontratistaren bat-bateko heriotza edo ezintasuna edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoaren iraungipena.

(ii) Kontratistak hartzekodunen konkurtsoa edo kaudimengabetasuna aitortzea edozein prozeduretan edota kita eta itxaroteko akordioa egitea.

(iii) EEE/EVEren eta kontratistaren arteko akordioa.

(iv) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, EEE/EVEk egokitzen joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari EEE/EVEk eskatu eta bere horrean gauzatu lanak ordainduko litzazkioke soilik, arrazoi honengatik EEE/EVEri kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

(v) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(vi) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, EEE/EVE baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatu jarraituz, berez edo egokitzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

26 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKL-en 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitze eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroak.

1. ERANSKINA PROPOSAMEN EREDUA

Izen-abizenak:.....

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

Datu horiek Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. Aipatutako kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko EEE/EVEren Kontratatzailearen Eskakizunean edo Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
- 2..... Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
- 3..... Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
- 4..... Eurekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
- 5..... Aipatutako kontratua burutzeko konpromisoa hartzen dut _____ euroko kopuru oso eta gehienekoarekin. Kopuru horri BEZaren _____ euroak gehitu behar zaizkio eta, ondorioz, hau litzateke guztizko kopurua: _____ euro.

[Lekua, data eta sinadura]

2. ERANSKINA

Izen-abizenak:.....

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

.....

Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak, ez sozietate horretako gobernu-organotako pertsonak, ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluan adierazitako kontratatzeke debekurik.

Halaber, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Eta hala jasota gera dadin, EEE/EVErekin kontratatzeke lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazio gisa, ziurtagiri hau egin dut:

[Lekua, data eta sinadura]

3. ERANSKINA

Izen-abizenak:.....

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

.....

Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen ditudan pertsonak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluan araututako kontratatzeke debekurik.

Halaber, adierazten dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Eta hala jasota gera dadin, EEE/EVErekin kontratatzeke lizitatuzaileek aurkeztu beharreko dokumentazio gisa, ziurtagiri hau egin dut:

[Lekua, data eta sinadura]

4. ERANSKINA
EKONOMIA JARDUEREN GAINKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:.....

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

[Lekua, data eta sinadura]

5. ERANSKINA

ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

Egitasmoa

Euskadiko gizarte eragileei inkesta bat egiteari begira, giltza eskuan erakoa, inkesta hori planifikatu, diseinatu, koordinatu eta aztertzea, eragileek energia gaiez duten ezagutza, interesa eta Energiaren Euskal Erakundearen jardueren ezagutzaz eta horien gaineko iritziaz jakiteko asmoz.

Aipatutako gizarte eragile horien ikuspegi edo iritzi adierazgarria lortzea da xedea, haien jardunean energia gaien inguruko erabakiak hartzeko gaitasun edo ahalmena izan dezaketen aldetik, eta haien lanean gainerakoengan eragiteko ahalmena izan dezaketen heinean.

Proposamenek helburu horiek eskuratzeko metodologiarik egokiena azaldu behar dute; betiere, erantzun eta emaitzen kalitate eta fidagarritasun handiena kontuan izanik.

Gizarte eragileak

Gizarte eragiletzat honako pertsona edo erakunde hauek hartuko ditugu: haien lanaren bidez garatzen duten zereginen ondorioz, energia alorrean gizarteko gainerakoengan eragina izateko ahalmena dutenak zenbait esparrutan. Hori horrela, eta lizitatzailerik beste batzuk proposatzeko aukera zabalik utzirik, honako hauek izan daitezke gizarte eragileak:

- Enpresa elkarteak
- Sindikatuak
- Administrazioako erakundeak
- Prentsa eta hedabideak
- Komunikazio agentziak
- Enpresa garrantzitsuenak zenbait arlotan:
 - o Enpresa teknologikoak
 - o Makina-erreminta
 - o Elikagaien banaketa
 - o Banaketa handia (ehungintza, altzariak, etab.)
 - o Garraio alorra (bidaiariak, salgaiak)
 - o Automozioa
 - o Siderurgia
 - o Papertegiak
 - o Eta abar

Zerbitzuaren irismena / Lanaren irismena

Lan honen irismenak honako jarduera hauek aurreikusten ditu:

- a) Galdeketaren diseinua eta gauzatzea, eta datuak eskuratzeko landa lana aurrera eramatea.
- b) Unibertsoa: enpresaren barruan ardura handiena duen pertsonari egingo zaio inkesta, edo gizartean duen garrantziagatik bere esparruan, egitasmo honetan parte hartzeko egokiena den pertsonari egingo zaio.
- c) Enpresa esleipenduna arduratuko da harremanak garatzeaz eta landa lan guztia egiteaz.
- d) Erabiliko den metodologia: inkestak eta gainerako lanak egiteko, lizitatzailleek egokien jotzen duten metodologia hautatuko dute, eskatzen diren datuak lortu ahal izateko. Erabiliko duten metodologia justifikatu edo arrazoitu behar dute, adibidez, beste batzuen aldean, dituen abantailak, eragiten dituen zailtasunak eta metodologia zehatz bat erabiltzetik espero daitezkeen emaitzak.
- e) Errakuntza tartea eta konfiantza maila adieraziko dira; gehienez ere, +-%5, eta gutxienez ere, %95 izango dira, hurrenez hurren.
- f) Galdeketaren laburpen orientagarriak honako atal hauek bildu behar ditu:
 - 1) Energia moten ezagutza: onarpen maila.
 - 2) Energia aurrezteko kulturaren ezagutza.
 - 3) Energia berriztagarrien ezagutza.
 - 4) Energia mota guztien aurrean, alde positiboen eta negatiboen pertzepzioa eta ezagutza.
 - 5) EEE/EVEren ezagutza: maila, ematen duen irudia, etab.
- g) Aurrekoaz gain, azken txostena ere egin eta aurkeztuko da. Horrekin batera, txosten exekutiboa prestatuko da eta EEE/EVE Zuzendaritza Kontseiluari emaitzen aurkezpena egongo zaio.

Proposamenen edukia

Lan programa : Lanaren proposamena eta planifikazioa jasoko ditu, eta lanak gauzatzeko aurreikusten diren epeak.

Kostua: Enpresak balioetsitako zenbateko ekonomikoa da. Kostua aurkeztu ahal izango da lana bere osotasunean egiteko, edo enpresak lanak behar bezala egiteko egokitzat jotzen dituen fase bakoitzerako. Zenbateko ekonomikoa guztizko kantitatea izango da, zerga guztiak barne izanik.

Lan taldea: Egitasmo hau gauzatzeko aurkeztzen duen lan taldea azaldu beharko du enpresak. Taldeko pertsona horiek egitasmo honen alorrean dituzten gaitasuna eta

esperientzia egiaztatu beharko da. Gainera, horietako bakoitzaren jarduna zein izango den adieraziko da.

Landa lana egingo duen lan taldearen hautaketa garrantzi handikoa izango da, horiek elkarrizketatu beharko baitituzte egitasmorako funtsezko diren gizarte eragile nagusiak.

Egitasmoarekin zerikusia duten erreferentziak: Azken urteotan enpresak egindako antzeko proiektu edo lan garrantzitsuenak adierazi beharra dago, egitasmoaren alorrean daukan esperientzia balioetsi edo erreferentzia izateari begira.